



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko martxoaren 8a

26. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da zehaztu eta gara ditzan beharrezkoak diren neurriak pozoia dela-eta kaltetutako barrutietako naturguneetako fauna babestua bere onera ekartzeko eta ordena biologikoa leheneratzeko. Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Batzordeak onetsia (2. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da jarduketa-protokolo bat presta dezan Asiako liztorraren (*Vespa velutina nigritorax*) inbasioa dela-eta. Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Batzordeak onetsia (3. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da zenbait neurri har ditzan “Barañaingo Auditorioa” fundazioaren bideragarritasuna ziurtatzeko. Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordeak onetsia (3. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da erabateko lehenbailehen eta lehenbailehen has ditzan Tuterako eta Iruñeko klaustroak zaharberritzeko lanak. Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordeak onetsia (4. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak babesten baititu lan erreformaren ondorioak pariatzen ari diren enpresetako batzordeek martxoaren 9rako deitutako mobilizazioak. Eledunen Batzarrak onetsia (4. or.).
- Adierazpen instituzionala, Emakumearen Nazioarteko Eguna dela-eta (2013ko martxoaren 8a). Eledunen Batzarrak onetsia (5. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babes ematen baitie 18. Korrikari eta helduen euskalduntze taldeek euskara berreskuratzeko egiten duten lanari. Eledunen Batzarrak onetsia (5. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Galdera, Vázquez de Mella ikastetxe publikoak Sarrigurenen eginiko propagandari buruzkoa. Galdera erretiratzea (6. or.).

---

**E saila:**

**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zehaztu eta gara ditzan beharrezkoak diren neurriak pozoia dela-eta kaltetutako barrutietako naturguneetako fauna babestua bere onera ekartzeko eta ordena biologikoa leheneratzeko.**

*LANDA GARAPENeko, INGURUMENeko ETA TOKI ADMINISTRAZIOko BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Batzordeak, 2013ko otsailaren 27an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zehaztu eta gara ditzan beharrezkoak diren neurriak pozoia dela-eta kaltetutako barrutietako naturguneetako fauna babestua bere onera ekartzeko eta ordena biologikoa leheneratzeko".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berehala zehaztu eta gara ditzan beharrezkoak diren neurriak, ukitutako barrutietako naturguneetako fauna babestua bere

onera ekartzeko eta pozoiak hondatutako ordena biologikoa leheneratzeko.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du egoki diren prozedurak gara ditzan saiheste aldera lurralde horretan izandako hegazti-pozoitze masiboaren eragin negatiboak. Zehazki, honetara premiatzen du:

1. Erreserbako hektarea kopurua handitzera.
2. Ehiza-egunak murriztera, ingurune fisikoa leheneratzeko eta untxia eta basurdea bezalako espeziak kontrolatzeko xedez.
3. Ustez zerikusia duten pertsonen ehiza-baimena eta, kasua bada, barrutien zaintza kentzea, kautelazko neurri gisa.

Iruñean, 2013ko otsailaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da jarduketaprotokolo bat presta dezan Asiako liztorraren (*Vespa velutina nigritorax*) inbasioa dela-eta.**

### *LANDA GARAPENeko, INGURUMENeko ETA TOKI ADMINISTRAZIOko BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Batzordeak, 2013ko otsailaren 27an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen baita jarduketa-protokolo bat presta dezan Asiako liztorraren (*Vespa velutina nigritorax*) inbasioa dela-eta.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du jarduketa protokolo bat

taxutu dezan, Asiako liztorraren –*vespa velutina nigritorax*– inbasioak dakarren krisi ekologiko larriari aurre egiteko.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du behar diren baliabide tekniko eta ekonomiko guztiak bidera ditzan protokolo hori taxutzera, eta erakunde edo administrazioekin behar den elkarlana has dezan egoki diren azterlanak egite aldera, Asiako liztorra eta ez beste erakartzen duen feromona aurkitzeko xedez.”

Iruñean, 2013ko otsailaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait neurri har ditzan “Barañaingo Auditorioa” fundazioaren bideragarritasuna ziurtatzeko.**

### *KULTURAKO, TURISMOKO ETA ERAKUNDE HARREMANETAKO BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordeak, 2013ko otsailaren 26an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait neurri har ditzan “Barañaingo Auditorioa” fundazioaren bideragarritasuna ziurtatzeko.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berrets dezan, iraganean berariaz egin zuen bezala, Barañaingo Auditorioa eszena-eremu berezi bat dela eta bere aurrekontu-plangintza egoki diezaiola adierazpen horri. Horrenbestez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, hori ahalbidetzeko, abian diren deialdien oinarriak alda ditzan, edo beste deialdi bat egin dezan, Barañaingo Auditorioak behar duen erakunde-babesa eduki ahal dezan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bere apustua berrets dezan Barañaingo Auditorioak jarrai dezan izaten Nafarroako Orkestra Sinfonikoak entseguak egiteko egoitza, hori positiboa baita bi entitateentzat, eta, horretarako, bi erakunde horien arteko urte antzeko hitzarmen bat bultzatzea.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, Barañaingo Auditorioak daukan eszena-eremu bereziaren izaerarekin eta eskualde-bokazioarekin bat etorritz, Fundazioak behin eta berriz horixe adierazi baitu eta konpromiso hori hartu baitu, auditorio hori sar dezan departamentutik bertatik sortzen diren programetan.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, daukan eragin zalantzagabea dela eta, Barañaingo Auditorioa Fundazioarekin batera lan egin dezan babes pribatua aurkitzeko, etorkizun hurbilean programazioari eusten laguntzeko.”

Iruñean, 2013ko otsailaren 26an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da erabateko lehentasunez eta lehenbailehen has ditzan Tuterako eta Iruñeko klaustroak zaharberritzeko lanak.**

### *KULTURAKO, TURISMOKO ETA ERAKUNDE HARREMANETAKO BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordeak, 2013ko otsailaren 26an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da erabateko lehentasunez eta lehenbailehen has ditzan Tuterako eta Iruñeko klaustroak zaharberritzeko lanak."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du erabateko lehentasunez eta lehenbailehen has ditzan Tuterako eta Iruñeko klaustroak zaharberritzeko lanak, gure kultur ondareko bi multzo bereziki garrantzitsu horiek babeste aldera.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bisita gidatuen bisita plan bana abian jar dezan, bi multzo horiek zaharberritzeko prozesuak dirauen bitartean, herritarrek interes bereziko prozesu artistiko horretan parte har dezaten.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, baliatutako funts publikoen ordainetan, herritarrek aise ordaintzeko moduko sarrera bat negoziatu dezan Iruña-Tuterako elizbarrutiko agintariekin, berariazko abantailak ezarrita hala erabakitzen den kolektiboentzat.

4. Nafarroako Parlamentuak Iruña eta Tuterako elizbarrutiko agintariak premiatzen ditu sarrerak kobratuz bildutako dirua oso-osorik erabil dezan ondarea kontserbatu eta ezagutarazteko."

Iruñean, 2013ko otsailaren 26an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## **Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak babesten baititu lan erreformaren ondorioak pariatzen ari diren enpresetako batzordeek martxoaren 9rako deitutako mobilizazioak.**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

2013ko martxoaren 4an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

"Nafarroako Parlamentuak bere babesa eman nahi die mobilizazio horiei, eta adierazten du enpresa horietako langileek irazpen, espediente,

itxiera, deslokalizazio eta soldata jaitzieren bidez pairatutako erasoaren aurkako eta enpleguaren defentsaren aldeko jarrera duela."

Iruñean, 2013ko martxoaren 5ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## **Adierazpen instituzionala, Emakumearen Nazioarteko Eguna dela-eta (2013ko martxoaren 8a).**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

2013ko martxoaren 4an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak:

– Bere kezka adierazten du, krisi garai honetan emakumeek pairatzen duten penalizazio bikoitzarengatik.

– Aitortzen du emakumeek parte hartzea lan merkatuan eta esparru politiko, ekonomiko eta sozialean, bai eta berdintasun politikak bultzatzea ere, ezinbestekoa dela ekonomia suspertzeko eta krisiaren irtenbide solidario eta ekitatezko baterantz joateko.

– Adierazten du bere borondatea dela genero indarkeria desagerraraztera bideratutako neurri guztiak babestea.

– Adierazten du bere borondatea dela emakumeen eta gizonen arteko eskubide-berdintasun osoa lortzera bideratutako neurri guztiak abian jarzea.

2. Nafarroako Parlamentuak:

– Konpromisoa hartzen du erantzun bat emateko prekarietate, pobrezia eta bazterketa egoeran

dauden emakumeen beharriaz, egoera bereziki zaurgarrian dauden emakumeen pobrezia eta bazterketa soziala prebenitzeko eta gizon eta emakumeen arteko egiazko berdintasunari buruzko legea betetzeko.

– Halaber, konpromisoa hartzen du udal eta autonomietako zerbitzu publikoak sustatzeko eta indartzeko, emakume izateagatik emakumeek pairatzen dituzten prekarietate egoerentzako erantzuna eta arreta bermatzearren, eta gizon eta emakumeen arteko egiazko berdintasuna errazteko eta sustatzeko.

– Orobat adierazten du Toki Araubidearen Oinarriari buruzko Legeko 28. artikulua berdintasunaren arloan ezarritako eskumenak kentzearen aurka dagoela.

3. Nafarroako Parlamentuak adierazten du emakumeen eta gizonen arteko egiazko berdintasuna lortzeko konpromiso irmoa duela, eta herritarrei gonbit egiten die parte har dezaten Emakumearen Nazioarteko Egunaren kariatara antolatzen diren ekintza guztietan.”

Iruñean, 2013ko martxoaren 4an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## **Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babesa ematen baitie 18. Korrikari eta helduen euskalduntze taldeek euskara berreskuratzeko egiten duten lanari.**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

2013ko martxoaren 4an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak:

1. Bere babesa ematen die 18. Korrikari eta helduen euskalduntze taldeek euskara berreskuratzeko egiten duten lanari.

2. Herritarrei gonbit egiten die *Eman euskara elkarri* goiburuarekin egiten den 18. Korrikan parte har dezaten.

3. Adierazpen instituzional hau martxoaren 14ko Osoko Bilkuran irakurriko da, lasterketa egun horretan hasten baita, edo, bestela, martxoaren 15ean, lasterketa Nafarroan sartzeko egunean.”

Iruñean, 2013ko martxoaren 5ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, Vázquez de Mella ikastetxe publikoak Sarrigurenen eginiko propagandari buruzkoa.**

*GALDERA ERRETIRATZEA*

Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordeak, 2013ko otsailaren 26an egindako bileran, adierazi zuen jakinaren gainean dagoela Miren Julia Aranoa Astigarraga andreak aurkezturiko galdera erretiratu izanari dagokionez. Galdera Vázquez de Mella ikastetxe publikoak Sarrigurenen eginiko propa-

gandari buruzkoa zen eta 2013ko otsailaren 11ko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2013ko otsailaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

---



